

GUZTIA EMATEN
DUENAK
GUZTIA
JASOTZEN DU.

7 B-H

B-I-ZI-HITZA

«Era berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta hura erosten du.»

Mt 13, 45-46

Chiara Lubichen azalpenetik
Gen 3 Zentroak egokitua

LUPAPEAN...

Ikasleek sentitzen dute, eta ez da lehen aldiz, exijentzia erradikal baten aurrean daudela, hau da, Jesusi jarraitzeko utzi behar den guzti horren aurrean: familiako maitasuna, segurtasun ekonomikoa, gerorako bermeak ...

Baina Jesusen eskabidea ez da zentzugabea edo arrazoi gabea. Galtzen den "guzti" horren ordainetan beste "guzti" bat, ordainezina eta preziatua, aurkitzen da.

Hau da parabolaren esanahi sakona: Jesusekin topo egitea, hau da harribitxia! Probetxu ateratzeko abagune paregabea da gure energia guztiak eta dugun guztia arriskuan horregatik jartzeko.

Jesusek zerbait eskatzen duen bakoitzean, asko, askosez gehiago, neurri bete-betea, emango digula agintzen digu.



Jainkoak gizon-emakume guztioi eskaintzen digu horrelako **okasioa** bizitzan, probetxu atera ahal diezaiozun.

Bizi-Hitza honek bihotzean Jainkoaren tokia har dezaketen idolo guztiak alhora uzteko gonbitea **egiten digu**: bizikleta bikain bat, motoa, kirola, dibertsioa...

Jainkoa lehen tokian eta geure pentsamendu eta afektu guztien gailurrean jartzeko gonbitea egiten digu; izan ere bizitzan den guztiak Harengana jo behar baitu eta Harengandik jaitsi.

"Txikiengandik" ikas dezagun Jainkoaren Probidentziaz fidatzen, zeren Berak, Aita denez, maitasunez duen guztia ematen duenari ez baitio ezeren faltan uzten.

Eman dudan "ZERBAIT":

Aurkitu dudan "ZERBAIT":

Horrela gertatu zitzaien

Kongoko gazteei



Hilabete batzuetatik hona Kongoko mutil batzuek txartel artistikoak egiten dituzte platano azalez, beroriek Alemanian saltzen direlarik. Hasieran irabazten zuten guztia beraientzat gordetzen zuten (horietakoren batek horrela mantentzen du bere familia osoa). Orain, berriz, %50a batera jartzea erabaki dute, eta langabezian dauden 35 gaztek hartu dute laguntza.

Eta Jainkoak ez du uzten inork eskuzabaltasunean irabaz dakion: mutil hauetako bik halako testigantza eman dute enplegatuta dauden dendan, ze pertsonal bila zebiltzan hainbat merkatari denda horretara zuzendu diren; eta horrela konkretuki hamaika mutilek lan finkoa aurkitu dute.

Bidali zure esperientziak Forum honetara:

www.teens4unity.org